

## B1

## Ez naiz çuri ederra...

Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatziriko lerro hauek ez ditugu erabateko ziurtasunez ulertzen, irakurketa batzuk paleografikoki zalantzazkoak direlako eta *balaz* hitzaren esanahia ez dakigulako; horrek testu osoaren puntuazioa baldintzatzen du, jakina. Are poema izaera bera ere zalantzazkoa da, baina koplak aske amaitugabe edo orraztugabearen antza hartzen diogu, zazpi eta sei silabako bertsolerroekin. Dena den, esku honen ohituraren arabera, dena lerro-segida bakarrean idatzita dago, bertso-lerrorik bereizi gabe, eta lerro-banaketa hau, hortaz, geuk asmatua da.

<1140v> Ez naiz çuri ederra.<sup>1</sup>  
 Balaz<sup>2</sup> eran,<sup>3</sup> laztana,  
 amorez gal dadila  
 gaiz deriztana;<sup>4</sup>  
 balaz eran banaiz vere, 5  
 banaiz goçaceco.

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Orrialdearen eskuineko zuriunean, trebesetara, Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatzita dago. **1** çuri] esk. *curi*. || ederra] esk. *edera*. **2** balaz] *baz-* idatzi du lehenengo, eta *-z* horren gaineratik idatzi du *-l-*. **4** gaiz] *gaz* idatzi du lehenengo, eta irudi luke *-i-* erantsi dela ondoren. **6** goçaceco] *-z-* baten gainean idatzita dago *-ç-*. Hasierako *g-* eta erdiko *-ça-* irakurketa ziurrak dira, baina gainerakoa ez.

<sup>1</sup> *çuri ederra*: Eskuizkribuko beste bi lekutan dago *çuri ederra* epitetoa: *Ene laztan çuri ederra* (B13: 1) eta *ene lastan çuri ederra* (B33: 5).

<sup>2</sup> *Balaz*: Ez dakigu zer esan nahi duen, ez euskaratik abiatuta, ez gaztelaniatik abiatuta, ez hitzaren beste mozketak edo ahoskera batzuekin saiaturik (*balazeran, bala zeran, balatzeran, balatzerran, balatz eran...*). Irakurketa paleografikoa bera ere ez da erabat ziurra, oso *-l-* bitxia baitu (agian *bataz?*).

<sup>3</sup> *eran*: Dardarkari bakarrarekin idatzita dagoen arraren, hemen eta bosgarren lerroan, ez da ezinezko *erran* irakurri behar izatea (cf. *linda erana / linda errana* AL: 1146r). Baina esanahia horrekin ere argitzen ez denez, nahiago izan dugu ahalik eta gutxien ukitu. Hortaz, hiru aukera dira: *era* izena deklinaturik izatea, *erran* aditzarekin lotua izatea, edo *edan* aditzaren aldaera bat izatea.

<sup>4</sup> *gaiz deriztana*: ‘gaitzirizten didana, gorroto nauena’.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B1 – Ez naiz çuri ederra...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago